

JARDUNBIDE EGOKIEN JARDUNALDIA

“Zainketetatik laguntzetara eta komunitateko inklusiora: pertsonengan oinarritutako arreta”

2024ko abenduaren 13a


JARDUNALDIEN BALORAZIOA

Datu orokorrak

Donostiako Kursaalen 2024ko abenduaren 13an egindako Jardunbide Egokien Jardunaldira 280-290 pertsona inguru bertaratu ziren.

Jardunaldiaren egun berean, bertaratze-erregistroak 295 pertsona zenbatu zituen, publiko orokorra, hizlariak, erakunde langileak eta erakundeetako ordezkariak barne.

Horietatik 273 publiko orokorrari zegozkion. Horien profilari dagokionez, lan egiten duten erakundearen arabera, grafiko honek gutxi gorabeherako banaketa jasotzen du:



Hirugarren sektoreko erakundeetako profesional gehienak Gipuzkoako Foru Aldundiaren adinekoentzako baliabideen sareko zentro eta zerbitzuetan lan egiten duten pertsonak dira, baina baita gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzako zerbitzuetan eta, gutxiago bada ere, desgaitasun-egoeran daudenentzako zerbitzuetan ere.

Ekitaldiaren balorazioa

a) Jardunaldiaren balorazio orokorra eta erabilgarritasuna


Guztira 59 pertsonak erantzun diote balorazio-inkestari, eta ekitaldiari 5etik 4,1eko batez besteko puntuazioa eman diote, 10etik 8,1en baliokidea.

Hautemandako erabilgarritasunari dagokionez, inkestatutako pertsonen % 50,8k uste du lanaldia nahiko erabilgarria izan dela (4tik 3) lanerako, eta % 39k, berriz, oso baliagarritzat jo du. Oro har, inkestatutako pertsonen ia % 90ek adierazi dute topaketa nahiko edo oso erabilgarria dela beren lan profesionalerako.

b) Edukiak

Jardunaldien edukiari dagokionez, interes-maila handiena eragin duten hitzaldiak jardunbide egokien lehen gunea (Pertsonen bizi-ibilbidea zentroetan) eta Joseba Zalakainen hitzaldia izan dira, 10etik 8,9ko eta 8,8ko puntuazioekin, hurrenez hurren. Aitzitik, interes gutxien piztu duen esku-hartzea, ikuspegi alderatu batetik, jardunbide egokien bigarren gunea izan da (Pertsonalizazioa akonpainamenduan eta zerbitzu komunitarioetan).

Jardunaldiaren edukiari buruzko balorazioa
 (0 batere interesgarria- 4 oso interesgarria)



Edukiei dagokienez, aipatutako puntu positiboetako batzuk honako hauek dira:

- Oro har, jardunaldiko edukien ikuspegia eta interes-maila, edukien aniztasuna eta ekitaldia sektore guztietara zuzendu izana: desgaitasuna, bazterketa, osasun mentala, adinekoak, eremu soziosanitarioa...
- Joeren eta programen gaineko esku-hartzearen argitasuna.
- Estrategia eta CuidAS sarea ezagutzea.
- Jardunbide egokien interes-maila, batez ere lehen mahai-inguruarena, eta praktika horiek zuzenean esku hartzeko funtzioak dituzten profesionalak azaldu izana. Era berean, jardunbide egokien lehen espazioaren planteamendua edo ikuspegia nabarmentzen da, ikus-entzunezko materialarekin batera.


- Naturaltasuna ponentzietan, alderdi positiboak, zailtasunak eta etorkizunerako erronkak azalduz.

Hobetu beharreko alderdi nagusiak, lehenik eta behin, jardunbide egokien ikuspegiarekin lotuta, gehienbat adinekoengan zentratu izana da, eta ez hainbeste beste eremu batzuetan, hala nola adimen-desgaitasunean edo gizarteratzean. Bestalde, esku-hartze jakin bati dagokionez, erabilitako ikuspegiari eta hizkuntzari buruzko zenbait desadostasun aipatu dira, ez baitziren beti lerrokatu ekitaldiaren helburu eta orientazio orokorrarekin.

Alderdi espezifiko bat kontraesanean adierazi da bi baloraziotan. Ekitaldia eremu edo kontingentzia zehatzetan ez zentratu izana balorazio batek puntu positibotzat jo duen bitartean, besteak, berriz, hobeto beharreko alderditzat.

c) Antolakuntza alderdiak

Ekitaldiaren alderdi orokorren balorazioari dagokionez, hurrengo grafikoak 1etik 4ra antolamendu-alderdi desberdinek lortu duten batez besteko puntuazioa jasotzen du.



Alde positiboan, honako alderdi hauek nabarmentzen dira: lekua, ordutegia, ezarritako denborak betetzea eta ekitaldiaren dinamismoa. Era berean, positiboki baloratzen da euskarari nolabaiteko protagonismoa eman izana. Antolaketa, oro har, egokitzat jotzen da eta jakintzaren eta jardunbide egokien transferentziara bideratutako ekitaldi bat egitea, bere horretan, positiboa dela uste da.

Jardunaldiaren antolaketari dagokionez, honako ahulgune hauek aipatu dira:

- Kursala espazio egokitzat jotzen bada ere, pertsona batzuek hizlariak atzeko lerroetatik ikusteko zailtasunak aipatu dituzte.
- Jardunaldiaren hasieran, aldibereko itzulpenaren interferentziak, zerbitzu horren ardua duten pertsonen ahotsa entzutean.
- Zenbait hizlarik ikusmen- euskarririk ez izatea (ppt edo antzekoa) zaila izan da edukiak ondo ulertzeko.
- Publikoaren interakzio handiagoa sustatzeko beharra nabarmendu da. Bereziki, mahai-inguruaren denbora murriztea iradoki da, jendearen parte-hartzeari leku gehiago eskaintzeko.

d) Jardunbide egokien hurrengo jardunaldietarako proposatutako edukiak

Balorazio-inkestak, amaitzeko, honako galdera hau zuen: *"Jardunbide egokiei buruzko hurrengo jardunaldi batean, zer gai jorratu nahiko zenituzke?"*

Galdera horri erantzunez, honako gai hauek aipatu dira:

- Praxi txarrak: nola saihestu edo hobetu.
- Arreta-eredu horretan sakontzea zentroen antolaketan: lidergoak, langileak, baliabide teknikoak, rol profesionalak, familiak, parte-hartzea, besteak beste.
- Irisgarritasun kognitiboa eta udaletatik inplementatzea.
- Zaintzaileen prestakuntza.
- Eredu hau gizarteratzeari, bazterketari eta etxegabetasunari zuzenduta.
- Zentroen eraldaketaren etorkizuneko helburuei zehatzago heltzea, jardunaldia iraganean eta orainean oinarritu baitzen.
- Adinekoei laguntzeko eta haien bizi-kalitatea hobetzeko: sexualki desegokiak diren jokatibideak nola bideratu (esku hartzeko aukerak), eta orokorran, nola heldu sexualitateari zahartzaroan.
- Euspen mekanikoaren alternatibak: hura saihesteko edo murrizteko medikazioa, baita beste bide eta aukera batzuk ere.
- Adimen artifizialean eskura dauden baliabideak, osasun mentalaren eremuari aplikatuta.
- Gaixotasun mentala duten pertsonen nahiak kudeatzea.
- Emakumea, autoestimua eta bakardadea.
- Eskubideen urraketa gainditzearekin, erabakitzeke autonomia sustatzearekin eta harreman esanguratsuekin lotutako gaiak.

- Nola uztartu pertsonen eskubideak eta autodeterminazioa osasun mentaleko baliabideetan, ikuspuntu profesional batetik ekintza jakin batzuek beren buruari "kalte" egin diezaioketenean.
- Pertsonen eta senideen testigantzak.
- Adinekoen bakardadea.
- Beste pertsona-profil batzuk: emakumeak, bazterketa-egoeran dauden gazteak, babeseko adingabeak edo espetxean dauden pertsonak, besteak beste.
- Etika lanean.